

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Uste baino plutonio gehiago Cadarache-n

FRANTZIAREN EKIALDEAN, Mediterraneoaren ondoan, Cadarache-ko ikerketa nuklear zentroa dago. Bertan, erregai atomikoa sortzeko enpresa ixten ari zirela, uste baino plutonio gehiago topatu dute andeletan gordea. Zortzi kilogramo baino ez zirela egongo espero zuten, eta hara non 39 azaldu diren.

Horren aurrean, Segurtasun Atomikorako Komisioak (ASN) 2. mailako alerta ezarri du, eta bertan behera utzi ditu lantegia ixteko lanak. Antza denez, hainbat baldintza aldi berean emanez gero, plutonio kantitate horrek kate-erreakzio nuklearra sor dezake. Horrez gain, bertan ari diren langileen osasunak kalteak jasan ditzake, jada jasan ez baditu. Gertaera hau Frantzia izateak asko larritu du Energia Atomikorako Komisioa (CEA), eta zalan-zan jarri ditu lantegi nuklearretan erabilitako metodologia guztiak.



Cadarache-ko ikerketa zentroa.

Erradio-frekuentzien arriskua nahita gutxiesten dute artikulatu zientifiko askok

INGURUGIRO ETA LANEKO segurtasunerako agentzia frantziarrak (AFSSET), erradio-frekuentziei buruzko azterketa sakona egin ondoren, haien eraginpetik ahalik eta urrutien edo ahalik eta denbora gutxien egotea aholkatu du.

Urteetan aritu da lanean AFFSET, eta 1.000 artikulatu baino gehiago eta dozenaka nazioarteko txosten aztertu ondoren, urriaren 15ean eman ditu ondorioak.

Eragin biologikoez ziharduten 100 artikulutik bederatzi baino ez dira ontzat hartu; horietan hainbat gaixotasun izateko arriskua aipatzen da. Erradio-frekuentziak efekturik ez duela adierazten duten 69 artikulatu baztertuak izan dira, fidagarritasun zientifiko nahikorik ez zutelakoan.

Emaitzak oso orokorrak izan badira ere, ikertzaileren susmoa da erradio-frekuentzien eragina uste baino handiagoa dela, eta interes ekonomikoek arriskua gutxiesten duten artikulatuak zabaldu dituztela larritasuna kentzearen. Hala ere, garbi azaldu dute aztertzen segitu behar dela, baina zintzotasun zientifiko.



Zuhaitzen elektrizitatea nahikoa da zirkuitu batek funtzionatzeko

Zirkuitu elektrikoak funtzionatu ahal izateko energiaz hornitu behar direla gauza jakina da, baina energia iturria zuhaitzen energia izan daitekeela berria da. AEBetako Washingtongo Unibertsitateko ikerlariek zuhaitzek energia elektrikoak dutela frogatu dute. <http://ttiki.com/7215> (Gaztelaniaz)

Muskuilu berdearen itsaskortasuna salga

Muskuilu berdea oso erasokorra da, hainbat habitat inbaditzen ditu eta oso eza-guna da itsasontzietan itsas-ten delako oso gogor. Dena ez da, bada, txarra izango; zientzialariak muskuilu berdeen itsaskortasuna baliatzen ari dira itsasgarri komertzialak sortzeko. <http://ttiki.com/7216> (Gaztelaniaz)

CO₂ gehiago baina bero txikiagoa

Egun dugun karbono dioxido maila Lurraren historian topatzeko, hamabost milioi urte egin beharko genuke atzera, baina orduan egun baino askoz ere beroagoa zen klima. Ikerketa batek oso datu interesgarriak utzi ditu agerian. <http://ttiki.com/7217> (Frantsesez)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16